

AURKEZPENA

“Argalegi zaude”, “Ez jan horrenbeste”, “Kirol gehiago egin”, “Hezurretan zaude”. Ezagunak egiten al zaizkizu komentario horiek? 4 nerabetik 3 ez daude gustura haien gorputzarekin, eta, zifra horrek txikia dirudien arren, nerabeen %73 da.

Gaur egungo gizarteak markatzen dituen estereotipoak ez betetzeak horrelako milaka komentario jasan behar izatea sorrarazten du, eta horrek ondorio larrietara eramán gaitzake bai fisikoki eta baita psikologikoki ere.

Ferdaws, Saioa eta Garazi gara, gure taldeak GFS du izena eta Urretxu-Zumarragako ikastolako batxilergoko bigarren mailan gaude. Proiektua gure bizitzan jasan ditugun egoera desatseginak direla-eta sortu zen, konturatu ginen ez eskolan, ez kalean ez digutela erakusten nola maitatu geure burua; hau da, gaur egun milaka ikastaro izaten ditugu, eskolan hitzaldi asko entzuten ditugu, eta gauza asko ikasten ditugun arren, ez digute gure burua onartzen erakusten.

Hainbat iturri aztertu ondoren, proiektu hau sortu dugu gerora izan ditzakegun arazoak saihestu eta, bide batez, gizarteko estereotipoak hausteko helburuarekin. Gure proiektua aretoetan garatuko litzateke, hausnarketa eta ekintzetan oinarritutako saioak izango liriateke, hau da, hainbat ekintzaz osatutako jardueren bitartez gure erabakiak, eta normalizatutako erabakiak aztertuko ditugu. Era horretan, ikastaro honen bitartez, etxeko gazteenekin nola jokatu erakutsiko diegu gurasoei, seme-alabei beren burua onartzen ikasten laguntzeko.

Gure burua onartu eta maitatzeko ibilbide luze bat egin behar da, eta denbora eskatzen du, baina gu prest gaude gure zerbitzu honen bidez denbora eta bide hori murrizten laguntzeko.

